

BALDINTZAK

Jone Inge Urzelai

1835. urtean, amerikar kontinenteko txontek Galapagos irletan izandako eboluzioaz ohartu zen Charles Darwin. Irlak elkarrengandik urrun izanik, aldaketa genetikoaren muga ziren. Bertako baldintza bereziek, mutur, moko eta hatz ezberdineko txonten agerpena ekarri zuen, espezie ezberdin bilakatzeraino.

Herri Judutarra gas kameretara behartu zuen Alemaniaren estatuak, bertatik bizirik aterako ez ziren ustez. Baina milloika judutar Cyclone B gasari aurre egin ezinik ito bazituzten ere, 1948. urtean Herri Judutarrak, bizi baldintzak ziurtatuko zizkion Estatu Israeldarraren independentzia aldarrikatu zuen.¹

Gaur egun gas kamerak gure imajinariotik desagertu badituzte ere, (Herrien eta) estatuaren biziraupen eta handi gogoia ez dira desagertu, indar eta jakintza oro gogo hauen asetzeari eskaintzen dizkiote. Biolentzia efizienteago baten jabe, gure zapaltzaileek, Euskalerrria ukaturik, giro arrotzean, “polito, astiro-astiro baina gelditu barik”, “azken ebazpenaren” bidean nahi gaituzte, “euskal sigladun partidu espainiarren” lokomotoraren atzean.

Baina gizakiak (euskaldunak), Galapagosetako txontak ez bezala, baldintza jakin baten aurrean bizipairu aterabide aurkitzeko gai gara, autodeterminatzeko boterea daukagu.² Botere ideologikoa, Herrien autodeterminazioarekin duen lotura estua dela eta, estatuaren arteko borroka politikoaren muinean kokatzen da, “ideologia nagusia botere nagusien ideologia da”.

Imperialismoak egun, aroari³ dagozkion gezurrez estali nahi du Herriok berezkoa dugun “autodeterminazio eskubidea”, izan ere, espainiar eta frantsez legearen menpeko dela sinestarazi nahi digute, “gure esku dago” bezalako eslogan ponposoekin.

Bestearen zapalkuntza eta manipulazio gogo edo beharrak, estatuaren sorrera ezinbesteko egin zutenetik, botere ideologikoa bereizten du borroka estrategikoa infrastrategikotik, askatasuna zapalkuntzatik, eta bizitza heriotzatik. “Gure esku dago” bezalako ekimen propagandistikoekin, gezurra egi edo egia gezur bilakatu nahi duten honetan, Euskal Herriaren existentzia eta resistentzia frogatzen dute, aurreko saikera guztiak bezala, oraingoa ere hutsala izango zaie. Indar zapaltzaileek gorai patzen duten psikologiaren “muga-gabetasunaz” gain, Euskalerrriak eremu politikoan kokatua dela erakusten du behin eta berriz horrelako ekimenei muzin egitean.

¹ "The most important world organisations recognise, with increasing force, that the right of self-determination is a fundamental right of men and prior condition to all other rights. This is not just any law but a fundamental one that cannot be set aside. The United Nations have recognised this as such. All its organs have repeatedly reinforced this law and principle over the last fifty years." The right of self-determination, Erresuma.

² "Herri guztiek dute beren buruaz jabetzeko eskubidea. Eskubide hau dela bide, inolako mugarik gabe hautatzen dute beren antolakuntza politikoa, eta librok bermatzen beren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala". NBEen Batzarre Orokorrean, aho batez onartua.

³ Aro berria?, Abaroak.

Historia den laborategian, berezko zein arrotz, biolentziak politikarekin duen lotura baieztatzen da etengabe. “La política es la determinación de la condición y el comportamiento de los sujetos por medio de la violencia.”⁴ “Euskal-herria betidanik errotua dagola lurralde hauetan, lasterrenik eta biziki ontsa jakin zuten lehengo euskaldunek ez dela indarraren bidez funtsatu ez den gizarte, lege edo eskubiderik. Beraz, bide horretatik lortu ta segurtatu behar zutela hain beharrezko zitzaizoten askatasuna.”⁵

Inperialismo espainiar eta frantsesa gure lurretan nagusitzen ari diren honetan, Trojako zalditzat darabilten “euskal gidaritza politikoa” baztertzea ezinbesteko dugu, paraleloki (bada ere) eta kontrako norabidean, Euskal Estatua bultzatuko badugu. Horrela ezean, “formaltasun demokratikoz” bade ere, gureak egin du.

Gu euskaldunak gara, gurea Euskal Estatua!

Euskal Herria, 2019ko martxoaren 25a.

⁴ El pueblo vasco bajo el imperialismo, Iparla.

⁵ Gure Erresumaren egoera honetan, Erresuma.